

ZESUMA

TEKNOLOGIAK ETA MUSIKA (Inperuko Poza Trikitixaren VI. Jardunaldiei tiraka)

- **Teknologiaren ekarria hamarkadaz hamarkada: erabileraren argi-ilunak (Kaki Arkarazoren eskutik):** Teknologia mugidak **1950. hamarkadan** Ameriketako Estatu Batuetan hasi zuen bere bidea, jazz klubetan aritzen ziren musikarien eta elizetako gospel taldeen eskutik. *Ghetto* txikietako musika kalera ateratzeko **teknikaren beharra** nahitaezkoa zen.
1950. hamarkadatik 1960. hamarkadara bitartean **anplifikadorea** sortu zen, eta teknologia horrek instrumentuen soinuari eta ahotsari mila testura ezberdin gehitzea ahalbidetu zuen.
Gerora, **1980. hamarkadaren jiran**, sintetizagailuen aroan, teknikaren erabilera gehitxo zabaldu zen.

Kaki Arkarazoren ustez, musikariaren perfekzioa eta erosotasuna helmuga izateak, egungo kasua, teknologia gehiegiko erabilera ekar dezake. Bere iritziz, teknologia erabili erabil daiteke, baina musikaren bidez **zer transmititu nahi dugun gogoan** izan behar da beti.

- **Trikitixa, kopia edo originala? Xabier Erkiziaren gogoeta oinarri**
Originaltasunak gure garapenean garrantzi gutxi duela adierazi zuen, eta berdin musikan ere. Trikitiak ere bide bera bizi izan du. Trikitiaren zein musika herrikoia alorrean kopiatzea gauza naturala izan da. Porrusaldak, korridoak... nork idatzi ditu? Musika ez da ezerezetik sortzen, argudiatu zuen.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

ALTZA

PORRRU!

2008ko urria / 30.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01


GALBAHEA

- **Xabier Erkizia (musikagilea):**
“Kopia, azken finean, naturaren bizimodua da. Jaiotzen garen momentotik elkarri kopiatuz ikasten dugu, elkarri kopiatuz bihurtzen gara garena. Kopiak eta kopiatzeak egiten gaitu pertsona (...) Nola da posible kopiatzen duen gizartea originaltasunaren oinarritutako legeen arabera antolatzea? (...) Guztiok gara piratak, eta beraz, musikari oro ere, pirata da!
(Berria, 2008-IX-11)
- **Kaki Arkarazo (musika teknikaria):**
“Teknologia bi eratako eragina eduki dezakete. Batetik, motibatu egiten dute musikaria eta hori positiboa da. Tresna berriren bat inguratzen duenean, harekin zerbait ona egiteko gogoaz pizten zaio. Nik neronek ere sentitu dut hori, traste berriren bat erosi dugunean. Baina, bestetik, gerta liteke teknologia berrien bidez geure ezintasunak estali nahi izatea. Zera gerta dakioke talde bati, grabaketa lanean ari delarik: (...) Teknologia ez diegu muzin egin behar, bereziki testurak sartu ahal izateko”.
(Diario Vasco, 2008-IX-15)

KALEJIRAN

- **Iparraldeko trikitixa eguna, Donapaleun** Goizeko eguzkiak bazterrek gorrit indatzen ditu baina xuri-xuri ateratu zen. Donapaleuko merkatu plaza estalian batu ziren **Soraluze, Amikuze, Donibane Garazi, Ezpeleta, Hazparne, Baiona** eta beste hainbat lekutako trikitilariak. Amikuzeko taldea zaharren egoitzara joan zen lehenbizi, bertakoak alaitzera. **11:30tan** hasi zen **kalejira** herriko kaleetan zehar eta horrekin batera xirimiri pixka bat hasi zuen. Euriari ihesi elizan hartu zuten babes eta meza amaiturik zenez bertakoak ere alaitu zituzten Anbotitik Oizera piezarekin. Ondoren **aperitifaren** ordua etorri zen, **Amikuze Kantuz** taldearen laguntzarekin soina eta kantua uztartu ziren. Denbora hobetu zen berehala, hegoa haizea sartu zuelarik. Bazkal ostean **Kokin** taldearen txanda etorri zen. Soinu txikiak gain, instrumentu asko jotzen dituzte taldeko partaideek ahots joko bikainak ere egiten dituztelarik. Dantzarako errepertoriarekin lan handia egin dute eta **fandango, arin-arin eta kalejirez gain mutxikoak** eta beste hainbat dantza eman zituzten. Esan beharra dago neskak izan zirela nagusi, eta ez dantzan bakarri, kantuan ere bai. Eguzkia irten bezala xuri-xuri ezkutatu zen. **Trik'Amik Elkartearen** izenean mila esker gerturatu ziren guztiei. Edozein proposamen egiteko haxe Trik'Amik taldearen kontakua: **Ilde (0033)559657550**
- **Trikizio taldea Estatu Batuetako bira prestatzen** Trikizio taldea **urriaren 16tik 27ra** izango da **Estatu Batuetan**, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari esker. Momentuz Elko, Boise eta San Frantziskoko euskal etxeekin hitz egin dute, baina taldekideak beste **euskal etxe batzuetan** kontzertua emateko gogoz daude. Trikizio taldeak harreman estua du Diasporarekin. Bartzelonako eta Suitzako euskal etxeetan kontzertuak eman ditu, eta taldeko hainbat kidek Estatu Batuetako euskal etxeetan kontzertuak emateko aukera ere izan dute.
- **Zarauzko Trikitilari Gazteen Txapelketa** Zarauzko Euskal Jaiei baitan ospatutako Trikitilari Gazteen Txapelketan **Eneritz Goikoetxea** (soinua) donostiarrak eta **Edurne Errandonea** (panderoa) andoaindarrak irabazi dute. Bigarren saria Edurne Errandoneak (soinuarekin oraingoan) eta Ander Beldarrain oriotarrak (panderoa) jaso zuten.

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA 2008



Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren **zazpigarren ediziora** iritsi gara. Aurten Donostiako **Victoria Eugenia Antzokian** izango da, **azaroaren 22an**, larunbata. **Arratsaldeko zazpitan** hasiko da emanaldia. **Getxon** ere egingo da jaialdia; bezperan, **azaroaren 21ean**, **arratseko zortzietan**.

Aurtengo Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren **ildo nagusia dantza** izango da. **Irlanda, Italia eta Galiziako** tradizioaren zati batez gozatu ahal izango dugu, Euskal Herriko perlez ahaztu gabe.

Spraoi taldearen eskutik, **Irlandako dantza eta doinu tradizioan**alnak ezagutu ahal izango ditugu. **Italiako Menta Fresca** danza taldeari dagokionez, Italia hegoaldeko herri-tradizioa erakutsiko digu. **Galiziatik**, berriz, **Pandeiro Furado** taldeak egingo digu bisita, eta beren tradizioaren berri emango digute, **muñeirak eta jotak** lagun hartuta.

Euskal Herrian bertan geldiune bat eginez, **Igorreko Arantzarte Dantza Taldea** arduratuko da Arratiako tradizioaren zati bat erakustez. Lehendik ere hamaika jaialdi eta emanalditan parte hartutakoak dira, eta, bide batez, hamaika bazter ezagututakoak. Bizkaitik Gipuzkoara salto egin, eta bertako **sasi dantza** ere ekarriko dugu jaialdira. Horretaz **Gipuzkoako** hainbat erromeriatan parte hartu duen **seikote bat** arduratuko da. Dantzari bakoitzak norbere nortasuna eta berezitasuna baliatzen du saioetan, norbere dantzarako senari jaramon eginez. **Ipar Euskal Herritik**, berriz, **euskal dantzari berritzaileak eta txaranga rockero bat** batzen dituen gazte talde bat datorrigu: **Zpez Mukaki**. Hamabost gazte hauek tradizioari ukitu berri bat ematen diote, eta festan eta festarako prestatutako proiektua sortu dute. Euskal dantza tradizionalak dituzte oinarri, baina 1980-1990. hamarkadetakoinuen neurria mugitzen dira.

Dantzaren jiran antolatutako Nazioarteko Jaialdira hurbildu nahi duenak **15 euroren** truke ditu **sarrerak**. **Victoria Eugeniako** txarteldegian bertan (943 481818), **Antzoki Zahar**ean (943 481970), eta **Servikutxa, Telekutxa** (943 001200) eta **www.kutxa.net** helbideen bidez ere eskura daitezke. **Bazkideen kasuan**, salmenta-sisteman arazorik ez eragiteko, urteroko beherapena **Goiegi jatetxeko** afaritarako txartelean egingo zaie. 20 euro balio du **afaritarako sarrera** arruntak, eta bazkideenak **15 euro**. Menua huxe dugu: odolki eta haza pastela, bakailoa pil-pilean, txerri masailak ardo beltzetan, gazta pudina helatuarekin eta etxeko edariak.



Galiziako partaideak

INPERNUKO POZA VI. JARDUNALDIEN ARRASTOAN



Trikitixaren VI. Jardunaldiak irailaren 9tik 11ra egin ziren, **teknologia berriak** gai hartuta. Irailaren 9an Kaki Arkarazok eman zuen hitzaldia: *Teknologia berrien ezarpenak musikaren munduan*. Irailaren 10ean Xabi Erkiziak hartu zuen lekukoa, eta *Trikitixa, kopia edo originala?* izeneko hitzaldia eman zuen.

Bi hitzaldi hauen ondotik, irailaren 11n, azken egunean, **saio praktikoa** egin zuten. Carles Belda, Javi P3z eta Jon Lonberak ordenagailuarekin jardun zuten musika sortzen. Carles Belda trikitilari katalanak eta Javi P3z teknologian adituak lehendik ere egin dute lan elkarrekin, "Aupa Etxebeste" pelikularen soinua banda lantzen aritu baitziren.

Asier Ercillak eta David Nanclaresek, berriz, okasiorako prestatu zuten emanaldia. Bi musikari hauek Bizkaiko Balea grabazio estudioetako teknikariak dira, eta Ercillak trikitixa jotzen du, eta Nanclaresek bouzukia eta mandolina.

Aurtengo jardunaldiak ere, ohiko ildoari jarraiki, aberatsak izan dira. Teknologia berrien gaia trikitixaren eremuan zernolako bidea egiten ari den hausnartu da, batetik, eta, bestetik, bertara hurbildutakoek ordenagailuz sortutako musika entzuteko aukera ere izan dute; trikitixa eta teknologia berrien arteko uztarketa bertatik bertara biziz. Hitz soilak ez, hitzei doinua lagun, ziur etorkizunari begira material polita lor daitekeela jardunaldi hauek abiatutako bidetik.

2005-2007 JARDUNALDIETAKO MATERIALA LIBURUAN

Jardunaldion **helburua bikoitza** da. Batetik, trikitiaren gaineko azterketa bultzatu nahi da, eta, bestetik, material idatzia sortu nahi da. Izan ere, material idatzi gutxi dago, eta, trikitiaren esparrurako garrantzitsua da materiala edukitzea. Hori dela eta, **2005etik 2007ra arteko jardunaldietako gogoetagaik** abiapuntu hartu eta liburua argitaratu du EHTEK.

Eginahal horren bidez, 2005etik 2007ra bitarteko jardunaldien harian sortutako materiala berreskuratu da. 2005. urtean **koplak** izan ziren mintzagai, 2006an **Elgeta** trikitilari handiari egin zitzaion omenaldia, eta 2007an, berriz, **txapelketen nondik norakoez** jardun zuten hainbat gonbidatuk. Txapelketak beharrezkoak ote diren izan zen eztabaidagai nagusi.

Hitzaldiak egileek berek idatzi dituzte eta mahai-inguruen kasuan, transkribatu eta pasarterik interesgarrienak plazaratu nahi izan ditu EHTEK. Liburuan, besteak beste, lagun hauek parte hartu dute: Xabier Amurizak, Jabier Kaltzakortak, Koldo Izagirrek, Joxemari Iriondok, Iker Goenagak, Koldo Izagirrek, Joseba Tapiak, Koldo Tapiak, Koldo Iparragirrek, Imanol Urkizuk, Oier Araolazak eta Miel A. Elustondok. Egile hauen aurkezpen txo bat eta jardunaldietako argazkiak ere gehitu dira liburuan. Jardunaldiek jende mota desberdina bildu zuten, eta, hori dela eta, gai bakoitzari ekarri interesgarria egin dio parte-hartzaile bakoitzak.



Disko
berriak

TRIKIZIO: Euscat



Trikizio taldea Zegaman (Gipuzkoa) sortu zen 1999an. Trikizio taldeak hainbat musikariren sartu-irtenak izan baditu ere, taldearen bizkarrezurra eta gidaria den **Xabi Arakama** da hasierako kideetatik geratzen den bakarra. Musikariak aldatu dira, baina Trikizio taldearen sorrerako ideiek bere horretan jarraitzen dute: duintasunez kanturik entzutetsuenak jo, beste hainbat sortu eta alaitasuna transmititu. Trikizio taldea Euskal Herriko plaza-talde bat da, baina egungo partaide guztiek Donostiako Musikene Goi mailako Musika Eskolan lizentziatura lortu dute.

Trikizio taldeak, besteak beste, **honako lan hauek** egin ditu: "Buru-belarri" abestia egin zuen 2000ko Nafarroa Oinezarako (Zizur); Xabi Arakamak eta Kepa Junkerak 2003ko Araba Euskaraz ekitaldiko "Orobil borobil" singlea sortu zuten, eta AEKantuz disko-bilduman Xabier Letek abestu zuen Julen Lekuonaren "Itsasoan urak haundi" kantuaren bertsioa egin zuten.

Trikizio taldearen **lehen diskoak "EusCat"** izena du. "EusCat" diskoarekin bi kultura senidetu nahi dira,

Euskal Herria eta Herrialde Katalanak, eta, horretarako, bi herrialde hauetako kantu, artista eta talderik ospetsuenak bildu ditu. Euskal Herriaren eta Herrialde Katalanaren artean beti egon da kultur harreman estua; Herrialde Katalaneko talde asko izan ditugu bisitari Euskal Herrian eta Euskal Herriko musika talde andana ibili da Herrialde Katalanean barna jotzen. Horren adibide da Trikizio taldea bera, azkeneko hiru urteetan asko ari baita Mediterraneoko herrialdean jotzen. Mugimendu horren guztiaren isla "EusCat" diskoa da. Lan berezi bezain ausarta. Bi hizkuntzak erabiltzen dira disko berean, euskal kantutak katalanez abestu dira eta Herrialde Katalanekoak euskaraz.

Trikizio taldeak hainbat talderen abestiak moldatu ditu. Besteak beste, Pomada, Su ta Gar, Ovidi Montllor, Hertzainak, Lluís Llach, Mikel Laboa, Kortatu, Inadaptats, Obrint Pas, All Tall eta Xaxianorenak.



KEPA JUNKERA: ETXEA

Euskal kantu tradizionalak atzerriko kantarien ahotsetan. Horixe da Kepa Junkeraren *Etxea* lanean biltzen den edukia. Warner erraldoiak editatu eta banatuko du lan bikoitz hau eta euskal kantutegi tradizionalari erreposoa egin dio Kepa Junkerak, Iberiar penintsulako hainbat musikari eta abeslari lagun hartuta: Ana Belen, Antonio Orozco, Luis Eduardo Aute, Emilio Aragon, Estrella Morente, Jaime Urrutia, Luis Llach... Lan mardul honetan Junkeraren trikitiak ez du presentzia handirik, ordea; bigarren maila batean geratzen da.

Hona hemen diskoan entzun ditzakegun abesti batzuk: *Haurtxo txikia*, *Bautista Basterretxe*, *Bazkaldurikan bapobapo*, *Urzo xuria*, *Maitia non zira*, *Ikusten duzu goizean*, *Prima eijerra*, *Oh Pello*, *Pello*, *Orain kantatuko dut*, *Madalenara*, *Hiru damatxo*, *Iruten ari nuzu*, *Xar-mangarria zira*, *Miru zuria*, *Ikusi nuenean*, *Loriak udan*,

Lili eder bat badut nik, *Bermeoko portua*, eta *Joxe Migelen batela*, besteak beste.

Gabon giroan, **abenduaren 22an eta 23an**, lana zuzenekora eramateko asmoa du Junkerak. **Bi kontzertu** eman go ditu **Arriagan**. Diskoan parte hartzen duten artista guztiak gonbidatu ditu okasiorako.



TRIKITIXA ETA PANDERO IRAKASLEEN ZERRENDAA

Aldiro hainbat herritatik Trikitixa Elkartera deitzen digute trikitixa zein pandero irakasleen bila. Joera hau ikusirik, **irakasle izan nahi luketen hautagaien zerrenda** bat ireki beharko litzatekeela pentsatu dugu. Hemendik aurrera herriren batetik irakasle eske deituko balute, osatutako zerrenda hori bera bidaliko genuke eta eurek aukeratuko lukete nori deitu.

Datu-base hori ahalik eta azkarren osatzeko, **interesa duzuen guztiok** datu hauek bidali EHTEra: **izen-abizenak, herria, telefonoa eta emaila**. Datuak emateko, nahi den eran, Elkartera deitu edo idatzi.

Tel: 943832828 / 657794217
Emaila: trikitixa@trikitixa.net